

I. XEDAPEN OROKORRAK**ESTATUKO BURUZAGITZA**

- 4092** *Hutsen zuzenketa, honako errege lege-dekretu honena: 4/2015 Errege Lege Dekretua, martxoaren 22koa, enplegurako lanbide-heziketaren sistema presaz erreformatzeko lan-arloan.*

Hutsak atzeman dira martxoaren 22ko 4/2015 Errege Lege Dekretuan –enplegurako lanbide-heziketaren sistema presaz erreformatzeko lan-arloan–, zeina Estatuko Aldizkari Ofizialaren 2015eko martxoaren 23ko alean (70. zk.) argitaratu baitzen. Beraz, honen bidez hutsak zuzentzen dira:

Zioen azalpenean, 8. orrialdean, bigarren paragrafoaren azken tartekian, honako hau dioen lekuan: «... 2016ko prestakuntza-programazioan»; honako hau esan behar du: «... 2015eko prestakuntza-programazioan».

25. orrialdean, 21. artikulua Bi zenbakian, idazpuruan eta lehenengo lerroan, honako hau dioen lekuan: «Bi. Aldatu egiten da 5. artikulua, eta hona nola geratzen den idatzita: “Enpresaburuen egiteak nahiz ez-egiteak...”»; honako hau esan behar du: «Bi. Honela geratzen da idatzita 5. artikulua 1. zenbakia: “1. Enpresaburuen egiteak nahiz ez-egiteak...”»

29. orrialdean, 21. artikuluan, Hamalau zenbakian, honako hau dioen lekuan: «Hamalau. 46. artikulua honela geratzen da idatzita:...»; honako hau esan behar du: «Hamalau. 46. artikulua izenburua eta 1. zenbakia honela geratzen dira idatzita:...».